



## DEBAKO HONDARTZA

### 2025eko uda denboraldiko toldoak esleitzeko prozedura

Iazko toldoen esleipena 2024ko ekainaren 12an egindako zozketa irekian oinarritu zen. 2024ko esleipen oinarrietan jasotzen zen bezala, Udalak hala erabakita, aurten ere iazko zozketaren emaitzak indarrean mantentzeko erabakia hartu du.

Guztira 5 toldo multzo + toldo egokituak izango dira.

- 1. multzoa: 33 toldo
- 2. multzoa: 29 toldo
- 3. multzoa: 28 toldo
- 4. multzoa: 34 toldo
- 5. multzoa: 16 toldo
- Egokitutakoak: 10 toldo

*Oharra: Aurten, baliteke toldo gutxi batzuk gehiago izatea. Toldo horiek bigarren lerroan, 6. multzoa osotuz jarriko lirateke eta bigarren fasean ezarritakoaren arabera esleituko lirateke.*

Beraz, aurtengo toldoen esleipena 2024an eginiko zozketaren emaitzetan oinarritu da. Horren arabera, hainbat egoera desberdin eman daitezke toldoa eskuratzeko orduan, eta bakoitzak bere berezitasunak ditu:

#### **A.-Iazko zozketaren ondorioz TOLDOA denboraldi osoan izan zutenek**

Iazko zozketan tokatu edo ordezkoen zerrendatik toldoa alokatzeko aukera izan eta denboraldi osorako toldoa alokatu zutenei zuzenean iazko toldo bera esleituko zaie, beti ere ezarritako epean denboraldi osorako dagokion tasa ordainduz gero. (**A zerrenda**)

#### **B.-Iazko zozketan parte hartu zutenek baina TOLDOA eskuratu EZ zutenek. Ordezkoen zerrendan geratu zirenek.**

Iaz ordezkoen zerrendan, toldoa eskuratzeko aukerarik gabe geratu zirenek osatzen dute taldea. Hala ere, talde honetako batzuei adierazten den toldo zenbakia zuzenean esleituko zaie aurten (**A zerrenda**). Gainontzekoak ordezkoen zerrendan egongo dira. (**B zerrenda**)

Iaz ordezkoen zerrendan egonda, toldoa eskuratzeko aukera eman zitzaienei, baina toldoa alokatu ez zutenek, multzo honetatik kanpo daude.

Ordaintzeko lehen epea amaiturik, B zerrenda eguneratu egingo da, zerrendaren hurrenkerari jarraituz libre dauden toldoak esleituz.



**C.-lazko zozketan parte hartu ez zutenek edo ordezkoen zerrendan egon zirenek, baina TOLDOA eskuratu zutenek.**

Talde honetakoak, iaz zuzenean aldageletan, udal langileekin harremanetan, libre (zozketa eta hasierako ordezkoei eskaini ondoren) zeuden toldoak alokatu zituztenak dira.

Aurten ez dute toldoa era zuzenean lortzeko eskubiderik. Bigarren fasera arte itxaron beharko dute libre dauden toldoak alokatzeko.

**D.- Iaz EGOKITUTAKOETAN toldoa eskuratu zutenek.**

Egokitutakoen multzoari dagokionez, iaz desgaitasun ziurtagiri ofiziala aurkeztu zutenek izango dute aukera zuzenean toldoa eskuratzeko. Horiek **A zerrendan** agertuko dira ere

Gainontzekoak, aurten libre dauden toldo egokituak berriro eskatu beharko dituzte II fasean, eta berriro aurkeztu beharko dute egokitutakoa izateko arrazoi medikuak.

**E.-lazko zozketan parte hartu ez zutenek eta TOLDOA eskuratu EZ zutenek.**

Bigarren fasera arte itxaron beharko dute libre dauden toldoak alokatzeko. Udalak jarriko dituen toldo gehigarriak ere bigarren fase batean esleituko dira.

Egoera bakoitza kontuan izanda, 2025ean Udalak jarraituko dituen urratsak hurrengoak dira:

**LEHENENGO FASEA**

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | Epemugak    |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|
| 1. Udalak <b>behin-behineko zerrendak</b> argitaratzea udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan:<br><b>A zerrenda</b> (toldoa zuzenean esleitzen duena) eta <b>B zerrenda</b> (ordezkoena)                                                                                                                                                                                              | maiatzak 29 |
| 2. Aipatutako zerrenden inguruan <b>alegazioak egitea</b> , hala badagokio.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | Ekainak 2   |
| 3. Udalak Alegazioak erantzun eta <b>behin-betiko zerrendak argitaratzea</b> udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan.                                                                                                                                                                                                                                                                  | Ekainak 3   |
| 4. <b>Toldoa ordaintzea</b> , behin-betiko <b>A zerrendan</b> daudenek. Ezarritako epemugan ordaintzen ez bada, toldoa izateko eskubidea galduko da.                                                                                                                                                                                                                                              | Ekainak 8   |
| 5. Behin ordainketa epea amaituta, ordezkoen zerrenda ( <b>B zerrenda</b> ) eguneratuko da, eta hurrenkerari jarraituz, aukeratutako multzoaren mendebaldetik hasita libre dagoen lehen toldoa esleituko zaio zerrendako hurrengoari Multzoka, toldo guztiak bete arte edota ordezkoen zerrenda agortu arte jarraituko da.<br>Udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan argitaratuko da. | Ekainak 10  |



**6. Toldoa ordaintzea.** Ezarritako epemugan ordaintzen ez bada, toldoa izateko eskubidea galduko da.

Ekainak 15

### Kontuan izateko:

- Aurtengo toldo zerbitzua ekainaren 14tik-irailaren 14ra arte izango da.
- Toldoak ezingo dira elkar trukatu.
- Zuzenean toldoa egokitu zaienei, toldo zerbitzuaren arauak onartu beharko dute, aldageletara aulkien bila joaterakoan.
- Araudi honen interpretazioan sor daitezkeen gatazketan, Udalaren interpretazioa gailenduko da, dagokion txosten teknikoa kontsultatu ondoren.

### 2025 denboraldiko abonauak:

|                                                 | Tasa         |
|-------------------------------------------------|--------------|
| 1. ilarako toldoak, denboraldia                 | <b>245 €</b> |
| 2. ilarako toldoak (eta egokituak), denboraldia | <b>220 €</b> |

Oharra: aurtun ez da fidantzarik ordainduko.

### Ordainketa:

Transferentzia bitartez egingo da ezarritako epeetan, eta ordainagiria bidali beharko da [debahondartzazerbitzua@gmail.com](mailto:debahondartzazerbitzua@gmail.com) helbidera. Harremanetarako: 688625008 telefonoan. Kontzeptuan norberaren izen-abizenak eta esleitutako toldoaren zenbakia jarriko da.

Zenbaki kontua ordainketak egiteko: **-IBAN ES44 2095 0043 1091 2555 3561**

## BIGARREN FASEA

Udalak libre geratu diren toldoak argitaratuko ditu web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan. Udaldi osorako, hilabeterako, aste beterako edota egunerako alokatuko ditu toldo horiek **ekainaren 16tik aurrera**, egon daitezkeen eskaera-ordenaren arabera.

Fase honetako eskaerak **hondartzako aldagela edo kabinetan** egingo dira.

### Gainontzeko prezioak

|                    | Tasa         |
|--------------------|--------------|
| Toldoa, hilabeteko | <b>130 €</b> |
| Toldoa, asteko     | <b>70 €</b>  |
| Toldoa, eguneko    | <b>20 €</b>  |

## PLANOA

